



Wukro herriari laguntzeko ekitaldiak gaur

HERNANIKO talde batek Wukron misiolari dagoen Angel Olaranentzako dirua lortzeko ekitaldiak antolatu ditu gaurko eta biharko. Gaurkoak Atletismo pistan izango dira, arratsaldeko 17:00etatik aurrera. Bertan, umeentzeko jolasak izango dira, eta besteak beste marrazkiak egiteko aukera izango dute. Honez gain, elkartasun kilometroa eta salmenta postuak ere izango dira. /2

EHAK alderdia legez kanpo utzi du Auzitegi Gorenak

EHAK alderdia legez kanpo uzteko erabaki zuen ostegun iluntzean Espainiako Auzitegi Gorenak. Alderdia Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeetara aurkeztu zen 2005ean. Guztira 9 legebiltzarkide eskuratu zituen, horietatik bat Nekane Erauskin Hernanin bizi den aramarra. Erabaki honen ondorioz alderdiaren ondasunak Espainiako Estatuaren esku geratuko dira eta bere jarduna desegina./2

◆ FUTBOLA

Zubipen izango dira partidu nagusiak

Ohorezko mailan Hernanik Hondarribiaren aurka jokatu du arratsaldean. Emakumezkoen ligan berriz Añorga izango du aurrean. /7

❖ GARAGARDO AZOKA Garagardo azoka eguerditik irekita

Garagardo azokara gerturatu gero, giro ederra izango da gaur, ostegunean eta atzo bezala. Azoka 12:30etatik 01:00etara izango da irekita eta garagardoa edateaz gain, bazkaldu eta afaltzeko aukera ere izango da. Bestalde gaur 23:00etan hasita, umorezko monologoak izango dira azokan. II

❖ GRABAKETA

Plazan biltzeko deialdia

Urtarrilean Txanobarragorri izeneko antzezlanaren estreinatu-ko da. Antzerkirako irudiak bildu nahi dituzte eta horretarako herritarrei deialdia luzatu diete gaur eguerdikotik 12:00etan Plazan biltzeko. Txanoa eraman behar da, edozein modukoa. II

GAUR KRONIKAN

Karabel auzoan jaia
umeentzat /2

Pelota Gipuzkoako
Txapelketako partiduak /6

Udal Euskaltegian
matrikula /8

Gimnasioa itxita obrak
direla eta /6



‘Hernani patinez’ pasako dute gaur, ume, gazte eta helduek

MUGIKORTASUN Iraunkorreko Astearen barruan *Hernani Patinez* eguna izango da gaurkoa. Ume, gazte eta helduentzat patinez ibiltzeko ekitaldiak antolatu dituzte. Biak goizean izango dira, bat 11:00etan, ibilbidea herrian zehar, eta bestea, Ginkana 12:00etan Atletismo pistan. II

BAELU
Iluminazioa

MODERNOA-DISEINOA
FORJA - KLASIKOA
BEIRA - BRONZA-JARDINA

ERAKUSKETA ETA SALMENTA

**BEHERAPENAK
MATERIAL LIKIDAZIOA**

ZUBIONDO POLIGONOA B2 - 9 LANTEGIA - 20120 HERNANI
☎ 943 33 50 05

**Gimnastika Kontzientea
Bateratzailea**

✕ ✕ ✕ ✕ ✕

Ariketak hurrenkera naturalean
(Hobekuntza orekatu eta iraunkorrak)
Gimnastika kontzientea honen sustraiak Yogan,
Taijien, Borroka-arteetan etabarrean daude

Arnasketa teknika
Erlaxazioa eta mugimenduen koordinazioa

Estresa nola saihestu eta nola tratatu
Muskuluak indartzea, Abdo-gimnastika

Koordinatzailea:
Josune Goikoetxea

SASOIKO
Marieluts 4 beheak

943 33 11 83
656 721 492



DENBORALDI BERRIA

yone
boutique

Nagusia, 63
Tel.: 943 55 74 73 HERNANI

Wukro herriari laguntzeko ekitaldiak gaur Atletismo pistan

Umeentzako jolasak, elkartasun kilometroa eta salmenta postua izango dira arratsaldeko 17:00etatik aurrera.

GAURKOA egun haundia izango da Wukroko Elkartasun Jardunaldiko antolatzaileentzat. Wukron (Etiopia) dagoen Angel Olan misiolariarentzako diru laguntza lortzeko egiten den laugarren Elkartasun Jardunaldia izango da asteburu hone-takoa.

Gaurko ekitaldiak

Wukrorako dirua lortzeko ekitaldiak gaur arratsaldeko 17:00etan hasiko dira, Atletismo pistan. Hasteko ume jolasak izango dira, hau da, umeek marrazkiak egiteko aukera izango dute, herri kiroletan aritzekoa, eta abar. Ondoren, elkartasun kilometroa izango da. Bertan, Atletismo pistari bueltaka ari beharko dute, eta ibilbide guztian *eltxetxoak* izango dira. Kilometro solidarioa horixe da, *eltxetxoetan*, buelta bakoitzean, 0,50 eurotako diru laguntza sartzean datza.

Atletismo pistan salmenta postuak ere izango dira; bertan, kamisetak 10 euroan, motxilak 10 euroan eta pinak euro batean salduko dira, besteak beste.



Txanpon katea egin zuten joan den urtean Plaza Berrin.

Bihar herri bazkaria

Azken lau urteetan bezala, igandean ere herri bazkaria izango da. Bazkarirako txartelak aldeztuak saldu dira, eta eresia dutenek bakarrik joan ahal izango dute. Bazkaria eguerdiko 14:00ak aldera hasiko da Atsegindegi plazan. Menua ezin hobea: paella hasteko, eta ondoren, oilaskoa entsalada eder batekin. Postrerako berriz, *brazogitano*-a izango dute.

Laguntzen duten guztiei eskerrak eman

Aldez aurretik antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie ahal duten neurrian edota diru laguntzekin kolaboratzen duten guztiei: Hernaniko eta inguruetako enpresa guztiei, urte osoan zehar diru laguntza ematen jarraitzen dutenei, jardunaldietan parte hartzen dutenei eta baita Gazte Asanbladako lagunei ere, egindako guztiagatik. ||

❖ UDAL LIBURUTEGIA

Larunbatetan ere irekita

Gaurtik aurrera udal liburutegia larunbatero irekita izango da, goizeko 10:00etatik 13:00etara.

Bestalde, iraila hasieratik liburutegia goiz eta arratsalde dago irekita, goizeko 10:00etatik 13:00etara eta arratsaldeko 16:00etatik 20:00etara. ||

❖ SAGALTIALDE ELKARTEA

Mus txapelketako afaria irailaren 27an

Sagastialde elkartearen mus txapelketako afaria izango da irailaren 27an. Zuzendaritzak bazkideak animatu nahi ditu afarira joateko. Izena emateko epea bihar bukatzen da. ||

👉 Jasota Bezala

6 Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa 7 Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira 4 Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu 4 Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

Emakume hernaniar batek jasandako genero indarkeria- ren aurrean, salaketa.

Salatu, ozen eta gogor salatu besterik ezin da egin une honetan. Salatu eta babes osoa eskaini. Salatu bart gauean Hernanin jazo dena. Ordea eta zoritxarrez, bart gertatutakoa ez da salbuespena, eguneroko kontua baizik.

Zalantzak ditut arazoaren larritasunaz, gordintasunaz, handitasunaz eta garrantziaz oraindik ere jabetze ote garen. Zalantzak arazo bat, gizartean eta pertsonen arteko harremanen gauzatzean arazo haundi bat dela jabetzen garen. Jabetuko bagina, ez baikenuke horrelako berriak irakurri be-

harrik izango eta are gehiago, ez bailirateke gertatu ere egingo. Baina egun, hori urrun ikusten dut, oso urrun, eta gaur goizean are eta urrunago.

Zalantzarik ez dut ordea, egun hori iritsiko dela eta horretarako denok egingo dugula lan, elkarrekin, emakume eta gizon, bereizketarik gabe. Horretan dihardugu eta jarraituko dugu, ahal dugun eta dagokigun tokitik, lanean, horrelakorik gerta ez dadin. Eta gertatu den honetan babes osoa eskaini, baita laguntzeko prestutasuna ere eta nola ez, lanean jarraituko dugunaren erabateko konpromezua.

Garbi dago hainbat sektore egiten ari diren lana, Udala

barne, premiazkoa dela, baina ez nahikoa eta horretan sakondu dezakegun neurrian egiten jarraitu beharko dugula. Horregatik gaurkoa salaketa da, eta ez besterik, baina ezin da horretara mugatu eta gure alde-tik behintzat ez da horretan geratuko.

Salaketarekin batera eskari bat ere bai herritarrei, honelako egoera posibleen aurrean jarra-
ra aktibo bat izateko, denok dugulako zeregina gizon eta emakumeok berdinak izan gaitzen eta era honetako gertakariak errepika ez daitezen.

Usoa Barrutiabengoa

Olazabal

Hernaniko Berdintasun

Saileko Delegatua.

EHAK legez kanpo uztea erabaki du Auzitegi Gorenak

EHAK legez kanpo uzteko erabakia iragarri zuen ostegun iluntzean Espainiako Auzitegi Gorenak. Astear-
tean, EAE-ANV alderdia lege-
z kanporatu zuen Gorenak, eta
asteazkenean Auzitegi Nazionalak
Askatasuna eta Amnistiaren Al-
deko Batzordea desegiteko
agindua eman zuen.

EHAK alderdia Eusko Legebiltzarrerako hautes-
kundeetara aurkeztu zen
2005ean. Guztira 9 legebil-
tzarkide eskuratu zituen eta
bozeramaile Nekane Eraus-
kin izendatu zuten, Hernan-
in bizi den aramarra.

Auzitegi Gorenak hartu-
tako erabakiak ekarriko du,
EHAKren ondasunak Es-
painiako Estatuaren esku
geratzea eta bere jarduna
desegitea. Lehendik ere,

otsailean, Auzitegi Na-
zionalako Baltasar Garzon
epaileak EHAK alderdiaren
jarduna etetzeko agindua
emana zuen, EAE-ANVren
jarduna etetzearekin batera.
Horrez gain, Ezker Aber-
tzalea talde parlamenta-
rioko bi kide ikertzeko
eskaria egin zuen, tartean
Nekane Erauskin.

Aurrekariak

Bestalde, osteguneko era-
bakiak izango duen eragina
jakiteko goiz bada ere, epai
honek badiu aurrekariak.
Izan ere, duela bost urte,
Auzitegi Gorenak HB-EH-
Batasuna legez kanpo utzi
zituen eta Eusko Lege-
biltzarrari autoa bidali zion
SA taldea desegiteko agin-
duz. Legebiltzarrak ez zuen
SA desegin. ||

❖ GAZTEEN X. TRIKITIXA TXAPELKETA

Euskal Herriko dantzari gazteak bihar Hernanin

Guztira sei bikotek hartuko dute parte, eguerdiko 12:00etan hasita. Horietatik hiru hernaniarrak izango dira.

BIHAR eguerdiko 12:00etan hasiko da X. Gazteen Trikitixa Txapelketa Gudarien plazan. Txapelketa Kris-
kitiña Dantza Taldeak
antolatzen du Hernaniko
Udaleko Kultura Sailarekin
elkarlanean.

Guztira sei bikotek hartuko dute parte; Aia, Anoeta, Andoain, Zestoa eta Hernanikoak. Hauetatik hiru bikote hernaniarrak izango dira; Irati Ugalde eta Amaia Mujika, Maialen Murua eta Ainhoa Usandizaga, eta Olatz Jaka eta Ainhoa Errazkin. Guztiak Hernaniko Musika Eskola publikoko ikasleak dira.

Bikote guztiak baserritar jantziekin parte hartu beharko dute txapelketan eta hauen parte hartzea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago erabakiko da, zozketa bidez. Parte har-

tzeko kondizioa 16 urte baino gutxiago izatea da. Aurten parte hartuko duten bikoteek 12 eta 16 urte bitartean dituzte.

Hiru pieza

Bikote bakoitzak hiru pieza jo beharko ditu. Trikitixa eta porrusalda derrigorrezkoak izango dira. Hirugarren pieza berriz, fandango eta arin arinaren artean aukeratzeko izango dute parte hartzaileak.

Sari banaketa

Txapelketako bikote irabazleak txapela, trofeoa eta dirua irabaziko ditu. Hala eta guztiz ere, parte hartzen duten bikote guztientzako izango dira trofeoak eta diru saria.

Honez gain, Hernaniko hiru bikoteek beste trofeo bat ere jasoko dute. ||

❖ MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA

'Hernani patinez' egunean, ginkana eta ibilbide bat patinez egiteko aukera izango dira gaurkoan

Bi ekitaldiak gaur goizean izango dira, bata bestearen jarraian, eta bukaeran hamaiketako izango da.

MUGIKORTASUN Iraunkorren Astea amaierara iristen ari den arren, Udalak ekitaldi ugari antolatu ditu azken hiru egun hauetarako, kotxeaz aparteko garraio motak bultzatzeko asmoarekin.

Gaur 'Hernani patinez'

Gaurko bi ekitaldiak patinez egitekoak izango dira. Lehenengo goizeko 11:00etatik 12:00etara izango da. Ekitaldiaren helburua ibilbide bat patinez egitea izango da eta ibilbidea Txantxangorri elkartetik aurretik egingo da, Urbieta kalean barrena.

Ondoren, eguerdiko 12:00etan Atletismo pista inguruan ginkana egingo

da, patinez baita ere. Bi ekitaldiak haur, gazte eta helduei zuzenduak daude. Antolatzaileek jendeari parte hartzeko mezua zabaltzeko nahi dute. Gainera, ekitaldietan parte hartzen dutenentzat, amaitutakoan hamaiketako izango da.

Bestalde, patinak ez dituztenek patinak debalde alokatzeko aukera izango dute, karneta utzita. Patinak hartzeko postua goizeko 10:30etatik aurrera egongo da Txantxangorri parean. Patinak eguerdikoko 13:00ak aurretik itzuli beharko dira, Gabriel Zelaia plazan

Bihar bizikletaz


Gaur patinez ibiltzeko ekital-

diak izango diren bezala, biharkoan bizikletan zirkuito bat egiteko aukera izango da. Ibiltzera animatzen direnek, aukera izango dute 09:30etatik 12:00etara Plaza berrietatik aterata. Bihar ere, ibilaldia amaitu ondoren, partehartzaile guztientzat hamaiketako izango da.

Astelehena azken eguna

Astelehenean bukatuko da Mugikortasun Iraunkorren Astea. Arratsaldean 17:00etatik 19:00etara haurrentzako jolasak izango dira Urbieta kalean.

Ondoren, 19:00etan argazki lehiaketako parte hartzaile guztiei ongi merezitako saria emango zaie Udaletxean. ||



Patinetan gaur, herrian barrena egingo den ibilbidea.

❖ KARABEL

Umeentzako festa izango da gaur Karabelen

Arratsaldean lehiaketetako sari banaketa eta haurrentzako jokoak izango dira.

KARABEL auzoko bizilagun elkar-teak, Udaletxearen laguntzarekin auzoko umeentzako festa eguna antolatu du.

Festa gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera hasiko da Oleta plazan. Lehendabizi marrazketa eta idazketa lehiaketetako sari banaketa egingo da. Umeek aste osoan zehar, astelehenetik atzo arte auzoko bizilagun elkartean aurkeztu behar zituzten lanak. Bi lehiaketetan gaia auzoa bera zen, eta idazkia euskeraz zein erderaz egiteko aukera zegoen. Lehiaketetako irabazleek sari bikainak

izango dituzte aurtengoan. Lehenak 40 eurotako saria jasoko du eskolako gauzatan gastatu ahal izateko. Bigarrenak berriz, 30 eurotako saria eta hirugarrenak 10 eurotakoak.

Haur jokoak

Arratsaldeko 19:00etatik 20:00etara berriz, haur jokoak izango dira. Hau da, bizikleta lasterketa, krossa, lokotxak, txingak, aulkiaren jokoak, sokatira, eta abar. Partehartzaile guztientzat opariak izango dira. Eguna primeran amaitzeko txokolatada izango da denontzat. ||

❖ TOLAREA GIPUZKOAKO SAGARDOAREN KOFRADIA

Sagarra eta sagardoaren festa bihar

Tolarea Gipuzkoako Sagardoaren Kofradiak antolatuta, ekitaldi ugari izango dira bihar, Plazan.

AURTENGOAN ere Sagarra eta sagardoaren festa izango da Gudarien plazan bihar, Tolarea Sagardoaren Kofradiak antolatuta. Bertan, Hernaniko 12 sagardotegik hartuko dute parte, honako hauek: Itxasburu, Goiko-Lastola, Otsua-Enea, Elorrabi, Zelaia, Altzueta, Larre-gain, Rufino, Alberro, Iparragirre, Olaizola eta Akarregik.

Goizean ekitaldi ugari

Beraz, bihar goiz goizetik festa izango da. Goizeko 09:00etan,

kalejira izango da txistulariekin. Ondoren 10:30etan, sagar eta sagar produktuen erakusketa. Ordu erdi beranduago hasita, eguerdikoko 13:30ak arte, Sagardo dastaketa izango da pintxoekin batera, aipatutako sagardogileekin.

Sagardo dastaketak jende ugari erakartzen duela kontuan izanda, dastaketak irauten duen bitartean, 12:00etan sagarra biltzeko prozesua ezagutaraziko da, eta ondoren, sagardogintza erakustaldia izango da. ||

TELEMAR
Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -

PANASONIC
TX-32L ED 7F
HD ready
599 €
Tecnologia V-real2
Panel IPS-Alpha HD
Intelligent Scene Controller...

ZANUSSI
FA-621
orain 296 €
Big porthole
Aquacycle Teknologia
Programa selektorea

ZANUSSI
ZK-34/11 F6
orain 494 €
Kapazitate totala: 340 L
Kapazitate utila: 245 L
Dynamic power NF

HERNANI ENGLISH
HIZKUNTZAK
(Gure Ingelesetxea)

Rebeka D., Ibai Z., Jon I. eta Iñaki A.
ZORIONAK FIRST ATERA DUZUELAKO

MATRIKULA IREKITA IRAILA OSOAN
- ORDUTEGIA: 12:00 - 13:30
18:30 - 20:00

Deitu Alan/Joe: 943 33 11 08
Kale Nagusia 41 - 1

TRANBIA TABERNA

BETIKO JENDEA
BETIKO GIROA

PROBATU AL DITUZU GURE APERITIBO BERRIAK?

ORAIN LARUNBATA ETA IGANDEETAN MARISKOA BARRA-BARRA:

ZATUZ DASTATZEN!!

- NEKORAK
- KISKILAK
- LANPERNAX
- XARRAKELAK...

EGUNEKO MENUA
BAZKARI ETA AFARIETAKO ERRESERBAK
JANARI GUZTIA ERAMATEKO AUKERA
TFNOA: 943 33 69 49
MARIELUTS KALEA, 2 - HERNANI
ASTELEHENA ITXITA.

Herriko zinegileak pozik egoteko motiboak badituzte, izan ere ekoiztu dituzten bi laburmetrai, 'Autoretrato' eta 'Tras los visillos' izeneko Kimuak katalogorako aukeratu baitituzte. Kimuak katalogoa Eusko Jaurlaritzak eta Euskadiko Filmategiak bultzatutako ekimena da. Euskadi mailan urtean zehar egin diren laburmetraien artean 8 aukeratzen dituzte eta hauek munduan barrena

zabaltzen dituzte, jaialdi ezberdinetan eta bestelakoetan. Egun hauetan ari duen Donostiako Zinemaldian jarriko dituzte, baina barruko jendearentzat izango den proiektzioan. Azaroan Donostiako Terrorezko Zinemaldian jarriko dituzte eta urtarrilean, Victoria Eugeniean. Javi Alonso, Vito Rogado, Gregorio Muro eta Joxan Ruizekin hitz egin dugu, laburmetraiak osatu dituzten herritarrekin.

Herriko zinegileen laburmetraiak Kimuak katalogorako aukeratu dituzte

Zer garrantzi du zuentzat zuen laburmetraiak Kimuak katalogoan sartu izanak?

Gregorio: laburmetraiak festibalek eramatea sekulako lana da: haiekin harremanetan jarri behar duzu, festibal batzuetan laburmetraia aukeraketa prozesuan ikus dezaten kuota bat ordaindu behar duzu, korreoz paketeak bidali behar dituzu... gastu haundia da. Kimuak katalogoan sartzean, haiek egiten dute lan hori guztia. Haiek aukeratzen dituzte urtean zehar, haien ustez, EAE mailan egin diren laburmetrairik onenak. Zortzi aukeratzen dituzte, eta mundu guztira zabaltzen dituzte: festibalek, telebistek eta abar. Laburmetrai bat egiterakoan nahi izaten da jendeak ikustea, eta momentu honetan hori lortzeko biderik onena Kimuak da.

Helburu bezala planteatu zenuten hasieratik Kimuak katalogoan sartzea? Lehenago ere saiatu al zarete hori lortzen?

Javi: Egin genuen aurreneko laburmetraia, *Buenas noches papá* izeneko, Kimuak-era aurkeztu genuen. 2001ean Kimuakeko bi katalogo zeuden, bata nazio mailakoa eta bestea nazioartekoa. Nazio mailako horretan sartu ginen. Orduz geroztik ez nuen laburmetrai gehiago bidali, azkeneko hau izan da bidali dudana bigarren aldia.

Laburmetraia egitean, pentsatu genuen Kimuak-en sartzeko moduko kalitatean egin behar genuela. Kimuak programan aurkeztu diren lanak jarraitu ditugu eta ikusi dugu sariak irabazi dituztela. Hori ezingo genuke lortu gure kontura ariko bagina, Kimuak-ek ematen duen laguntza haundia da, batez ere arlo ekonomikoan.

Gregorio: Aurten 55 labur-



Ezkerretik hasita: Javi Alonso, Vito Rogado, Gregorio Muro eta Joxean Ruiz Miner.

***Tras los visillos* laburmetraia etxetik atera den superproduktzio bat da**

metraia aurkeztu dira Kimuak-era eta 8 aukeratu dira. Ikusten da gero eta lehia haundiagoa dagoela katalogoan sartzeko. Alde batetik, hori pizgarria da, baina badu bere alde negatiboa ere. Izan ere, katalogoan sartzeko normalean egingo zenukena baino esfortzu haundiagoa egiten duzu, inbertsio haundia-

goa egiten duzu eta sekulako komeria da aukeratzen ez bazaituzte. Gure kasuan, *Tras los visillos* laburmetraia etxetik atera den superproduktzioa da. Bestalde, beste festibaletan sartzeko arazoak izan ditzake, katalogoan sartu ez denak, pentsa dezakete katalogoan ez badago laburmetraia ez dela ona. Baina bueno, gauzak horrela daude, eta ongi etorria izan dadila Kimuak.

Ba al duzue festibal jakinik buruan, zuen lanak erakustea gustatuko litzaizuekenik?
Gregorio: festibal garrantzi-

Laburmetraiak:

AUTORETRATO

Alma talentu haundiko pintore gaztea da. Enpresari aberats batek babesten du eta bere hurrengo erakusketa prestatzen ari da. Bere ametsa betetzeko zorian dagoenean emakume misteriotsu baten ezusteko bisita jasoko du. Vito Rogado da aktore nagusietako bat.

Javi Alonso eta Raul Lopez. (La Burla produktora)

TRAS LOS VISILLOS

Laburmetraia terrorezko *thriller* bat da. Pertsonaje xelebrez betetako kontakizuna da: bere burua ezkutatu nahi duen hiltzailea eta aurpegiak aldatzeko operazioak egiten dituen medikua, beste batzuen artean.

Gregorio Muro eta Raul Lopez.

tsuenetan erakutsi nahi genituzke gure lanak, bistakoa den bezala.

Javi: *Clement Ferran* festibalean egotea ez legoke batere gaizki. Europa mailako festibal garrantzitsuenetako bat da. Bertan laburmetraia ugari erakusten dira, munduan beste edozein lekutan baino gehiago. Film batentzat Cannes-eko festibalean egotea bezalakoa da. Badakigu Kimuak-ek lanak bertan aurkeztuko dituela. Hori bai, Kimuak-ek festibal horretan aurkezteak ez du esan nahi bertan izango garenik.

Laburmetrai batean eta bestean elkarlanean aritu zarete, baina nabaritzen al da bakoitzean sortzailearen firma?

Gregorio: bai, begi-bistakoa da. Gauza bat da bata besteari laguntzea, baina erabakiak hartzen dituen proiektuaren erantzulea da. Laburmetrai hauetan berandu hasi gara bata bestearekin elkarlanean, elkar-lana postprodukzioan hasi baita. Nere laburmetraian, *Tras los visillos* izenekoan, nabaria da komikiaren eragina: pertsonajeak, istorio mota... Efektuek itxura surrealista ematen diote laburmetraiari. Istorio modu serioago batean kontatuko bagenu, ikusleak pentsatuko luke kontatzen den istorioa errealista dela. Hori pentsatuz gero, ikusleak dezepzioa senti dezake bukaera ikusterakoan. Hori dela eta, saiatu gara kontakizunean zehar sortutako atmosfera errealistak kolpe surrealista batzuekin nahasten: efektuekin, elkarriketetako hainbat esaldirekin... ikuslea pixkanaka-pixkanaka kokatzeko.

Javi: Autoretrato laburmetraiak antzerkian egin dudan lana islatzen du neurri batean. Bi pertsonaje dira istorioko protagonista eta dena lokalizazio bakar batean gertatzen da. Baina beste alde batetik zinematografikoki ikusten da, hau da, esate baterako antzerkian ez dago mozketarik, ez lehendabiziko planorik. Antzerkia eta zinea nahasten dira bertan: alde batetik antzerkiko estruktura duten pertsonaje, estruktura eta elkarriketa agertzen dira eta bestetik dena modu zinematografikoan azaltzen da.

Ze lan du laburmetrai bat egiteak? Zenbat diru eta denbora kostatzen da?

Javi: *Autoretrato* filma egiteko bi urte behar izan dira: gidoia idazten hasi, bukatu, erakutsi eta berari buruz hitz egiten hasi eta zerbait montatu nahi duzula erabaki; gero, lan taldea bildu eta nola nahi duzuen pentsatu eta erabaki behar da; gero errodatu egin behar da; eta ondoren postproduzio fasea dator, montajea eta abar. Denbora guzti



'Autoretrato' laburmetraiko fotograma bat.

***Clement Ferran* festibalean egotea ez legoke batere gaizki. Europa mailako festibal garrantzitsuenetako da. Bertan laburmetraia ugari erakusten dira**

***Autoretrato* egiteko bi urte behar izan dira: gidoia idazten hasi, bukatu, erakutsi, montajea hasi, lan taldea bildu...**

honetan zehar dirua gastatzen da eta hasieran behintzat beharrezko dirua norbere poltsikotik ateratzen da. Dirulaguntzak ere badaude, eta eskaera onartzen badute hortik lortu daiteke diru sarrera bat. Gaur egun laburmetrai batek, guk egin dugun kalitatean, 40.000 eta 50.000 euro artean balio ditu. Hori, lan egin duen jendeak kobratzen ez badu... kobratuko balu, beste 20.000 euro gehiago jarri beharko genituzke. Behin laburmetraia egiten hastean, gero eta gehiago nahi izaten duzu, eta ez diozu zure buruari barkatzen diru faltagatik gauzak gaizki egitea. Hor hasten da korapiloa, baina hasi zarenez bukatu egin behar duzu.

Gregorio: Kimuak-en sartu gara eta ondo hasi gara. Laburmetraia erakutsi ahal izateak egindako lana errentabilizatzeko aukera emango digu, beste modu batera bada ere, hau da, lanak egiten jarraitu ahal izateko aukera emango digu, eta proiektu interesgarrietan parte hartu eta egin dezakeguna erakusteko aukera emango digu. Garesti ateratzen den aurkezpen txartel moduko bat da. Gustatuko litzaidake azpimarratzea profesionalen osatutako lan taldea izan dugula eta debalde egin duela lana. Esate baterako *Tras los*

visillos-eko argazki zuzendaria Gonzalo F. Berridi izan da eta astebetez egin du lan, debalde. Berridi pelikula garrantzitsu askotan argazki zuzendaria izan da, bere soldata du, eta debalde egin du lana, laguna delako. Bera bezala, lan taldeko jende asko aritu da eta haien laguntza gabe ezin izango genukeen laburmetraia egin.

Bestalde, denbora aldetik, laburmetraia prestatzeko urtebete prestatuta lana behar izan dugu. Produkzio-aurrea ondo prestatzen baduzu, errazagoa izaten da jarritako helburuak lortzea.

Hitz egiten al da euskal zineaz? Zer iritzi duzue etiketa horri buruz?

Javi: Aurten film euskaldun bakarra egin da, Gorka Merxanen *La casa de mi padre*. Hori izango da Donostiako Zinemaldian ikusi ahal izango den euskal film bakarra.

Gregorio: Baina zer da zine euskalduna? Zer da, Euskal Herrian egiten dena, euskaraz egiten dena... Azken finean etiketa bat jartzea da. Egia da, sentsibiltate bat badagoela hemen, beti egin izan da zinea Euskal Herrian. Agian momentu honetan zailagoa da,

arrazoi ekonomikoengatik. Inbertitutako dirua ez da errentabilizatzen. Bestalde, badaude Madrilén egiten diren filmak, baina lan taldearen %80 euskalduna da. Zinean dabilzan euskaldunak mundu osoan zehar daude, filmeen kredituak ikusi besterik ez da egin behar.

Javi: Nik esango nuke laburmetraien kasuan esan daitekeela badagoela euskal laburmetraia. Bi euskal laburmetraia Oscarretarako nominatu zituzten. Esango nuke euskal laburmetraiak goi mailan izan direla. ■

Zine, telebista eta antzerki munduan ibilbide luzea egindakoak

KIMUAK katalogoan sartzea sari moduko bat izan da lau artista hauentzat, baina saria ez da kasualitatez etorri. Lauek ere urte ugari daramate zine, antzerki eta telebista munduan murgilduta.

Gregorio Muro, Zintzotasuna zineko proiektzioak jartzen zituenaren semea

Gregorio Muroren aitak filmak proiektatzen zituen Zintzotasuna zinean. Gregorio beti izan zen proiektio gelan eta betidanik gustatu izan zaio zinea. Etxean zinea egiteko dirurik ez zenez, paperean hasi zen zinea egiten, hau da komiki munduan murgildu zen. Komikiaren munduan arrakasta izan zuen, nahiz eta berak dioenez, marrazkilari baino gehiago gidoilaria den. Hainbat komiki liburu argitaratu ditu, European eta AEBtan. Komikak egitea izan zuen ogibidea urtetan. Zinean sartzeko aukera sortu zitzaion gero, marrazki bizidunak egiten. *La leyenda del viento del norte* filmeko gidoilaria izan da, telebistarako marrazki bizidun telesailak ere egin ditu. Zuzendari

lanetan ere aritu zen Carlos Argiñano protagonista zuen *El Rey de la Granja* filman. Goya saria irabazi zuen *Goomer* izeneko filmeko gidoilaria ere izan zen. *Año Mariano* eta beste hainbat pelikulan ere parte hartu du. Zinera bueltatzeko gogoa zuen, eta *Tras los visillos* laburmetraia osatu zuen, Kimuak katalogoan sartu dena. Gaur egun telebistan egiten du lan.

Javi Alonso, antzerkiaren herentzia

Javi Alonsok betidanik idatzi izan du. Antzerki gidoiak idazteari ekin zion eta hainbat antzerki obra idatzi eta zuzendu zituen. Gero zinearen munduan hasi zen, hainbat ikastaro monografiko egin zituen: argazki zuzendari ikastaroa, aktore zuzendaritza, gidoi ikastaroa. Bitarte horretan hainbat laburmetraia idatzi zituen eta horietako bat grabatu zuen, *Buenas Noches Papa*. *Autoretrato* bere laugarren laburmetraia da.

Vito Rogado

Vito Rogado aktoreak Madrilén antzerki ikasketak egin

zituen. Ikasketak bukatu eta Euskal Herrira itzuli zen. Hasierako urtetan ez zuen antzerako lan askorik egin. *La gran Evasion* programan hartu zuen parte eta gaur egun *Mi querido Klikowsky* telesailean aktore lanetan dabil. *Walt Disney me jodio la vida* izeneko antzezlanean aritu da aktore lanetan eta baita *Buenas Noches Papá* laburmetraian ere.

Joxan Ruiz, inguruko HD tekniko bakarretakoa

Joxan Ruiz hemen inguruan HD ekipoarekin ibiltzen den bakarretakoa da. HD kamarak definizio haundiko kamara digitalak dira, zineko kalitatea ematen dutenak. Telebistan egin du lan urtetan eta gaur egun Baint produktorako errealizadorea da, *Brikomanian* egin zuen lan eta gaur egun *Bricogarden* programan. Unitate mobiletan ere egiten du lan. Hainbat laburmetrai ere egin ditu lagun artean. Baint Produktoran Gregorio Muro-ekin egin zuen topo eta bi laburmetrai hauek egiten parte hartu du.

◆ PELOTA

Hernaniko bi bikotek Gipuzkoako Txapelketako partidua jokatuko dute bihar

Atzo hasi zuten Hernaniko pelotariak Gipuzkoako Txapelketa. Igandean, goizeko 11:00etan hasita Hernaniko bi bikotek txapelketako partidua izango dute Kiroldegiko frontoian.

HERNANIKO pelotariak martxan dira berriz ere. Udara partidu aldetik nahiko lasai pasa ondoren, iritsi zaie hauei ere txapelketak jokatzen hasteko ordua.

Atzo hasi zuten C.D. Hernaniko pelotariak Gipuzkoako Pelota Txapelketa. Igandean berriz, Hernaniarrek beste bi partidu jokatuko dituzte Kiroldegiko frontoian.

Goizeko 11:00etan hasita jubenilen eskuz binakako partidua izango da lehendabizi. Bertan, Hernaniko Noble eta Zapiain gazteak Usurbilgo bikotearen kontra ariko dira. Ondoren, seniorren eskuz binakako partidua izango da. Bertan, Esnal eta Gorratxategi pelotari hernaniarrek Eskoriatzako bikotea izango dute aurkari.

11 taldek jokatuko dute txapelketa Gipuzkoako binakako Txapelketa garrantzitsua izaten da C.D. Hernaniko pelotariarentzat, eta ondorioz, aurtengoa ere hernaniarren ordezkapen handia izango da txapelketan.

Guztira C.D. Hernaniko 11 taldek, hau da, 11 bikotek jokatuko dute txapelketa. Dударik gabe, bai taldearen eta bai pelotariaren helburua txapel bat edo beste eskuratzea izango da. Hala ere, taldearen nahirik haundiena seniorretako talderen bat edo bikoteren bat aurreneko mailara igotzea da. ||



Esnaiek eta Gorratxategik bihar jokatuko dute beren lehen partidua.

Kiroldegiko gimnasioa obrak direla eta itxita egongo da urrira arte

Gimnasioa haunditzeaz gain makina berriak ere jarriko dituzte. Gainera, lehen teniseko pista zegoen horretan hiru gela berri egin dituzte, batean tatamia jarri dute eta beste biak aerobic-a eta mantentze gimnasia egiteko egokitu dituzte.

UDAL Kiroldegiko gimnasioa asteazkenean itxi zuten eta hala egongo da urriaren 6ra arte, astelehena.

Tatamia kendu

Gimnasioko obrak asteazkenean hasi ziren. Orain arte, bertan gimnasia egiteko makinez gain, tatami bat ere bazegoen. Obren helburuetako bat, gimnasioak leku gehiago izatea da, eta horretarako tatamia kentzea erabaki dute. Horrela, gimnasio berriak lehen baino

askoz leku gehiago edukiko du.

Honetaz gain, makina berriak ere jarriko dituzte. Lehen zeuden batzuk mantenduko dituzten arren, besteak beste bizikleta estatikoak, besoak eta bularrak lantzeko makinak, bankoak eta abar jarriko dituzte.

Gainera, lehen tenis pista zegoen lekuan hiru gela berri egin dituzte. Batean kendutako tatamia jarriko dute eta beste bi gelak aerobic-a eta mantentze gimnasia egiteko izango dira. ||



Mantentze gimnasia eta aerobic-a egiteko gela berriak egokitu dituzte.

mihia jan dizu katuek?



**ASTINDU MIHIA TA
IRABAZI SARIA**

**ZEIN URTETAN EGIN ZUEN AZKEN
BIDAIA TRANBIA ELEKTRIKOAK?**

- 08-09 ikasturterako matrikula bat; zuretzat edo nahi duzunarentzat.
- Bi lagunentzako otordua ERRIOGUARDA jatetxean.



milaka hiztun berri urtero

Erantzunetarako buzolak: Kitto, Garin, Onddi, Irlzar, Zumiltza, Kide eta Txilln.

◆ FUTBOLA

Hernaniko talde nagusiak garaipenaren bila aterako dira gaur Zubipen

Ohorezkoen mailan Hernanik Hondarribia izango du aurkari. Emakumezko ligan berriz, Añorga. Bi partidua Zubipen izango dira.

LEHENGO hastean C.D. Hernaniko neska eta mutilen talde nagusiek emaitza gazi gozoe-kin hasi zuten denboraldi berria. Bi taldeek etxetik kanpo jokatu zuten denboraldiko lehen partidua. Mutilek Real Union izan zuten aurkari. Hernaniko jokalariai partidua jokatzera gogotsu irten ziren arren, ezin izan zuten talde irundarra menpean hartu. Azkeneko emaitza 3-0 izan zen, Real Unionen alde.

Haritz Arregiren neskek ere, aurreneko partidua etxetik kanpo jokatu zuten Vasco-

niaren aurka. Nahiz eta aurre-denboraldia ezusteko dexente-ekin pasa, itxura bikaina eman zuten aurreneko partiduan. Emaitza 0-1 izan zen talde hernaniarraren alde.

Bigarren partidua etxean
Liga hasi berria den arren, etxeko partidua irabaztea ezinbestekoa izaten da futbole-
an, eta gaurkoan horren bila aterako dira bi talde nagusiak.

Ohorezko Mailako partiduan, mutilek Hondarribia izango dute aurkari. Joan den urtean antzeko postuan amai-

tu zuten denboraldia bi talde-ek. Beraz, gaur 16:30etan hasi-ko den partidua itxuraz nahi-ko berdindua izango da, eta Hernaniko mutilek ahalegin guztiak egingo dituzte hau irabazteko.

Neskek aldiz, goizean goiz jokatu dute etxeko lehen partidua; 09:00etan alegia. Añorga izango dute aurkari. Añorga talde gogorra eta indartsua da, eta hernaniarrek denboraldiko bigarren garaipena lortzea izango dute helburu, beraz, ez dizkiote gauzak erraz jarriko. ■



Mutlak lehen garaipenaren bila aterako dira, neskak berriz, bigarrenaren bila.



KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA

Gorengo maila	Hernani - Hondarribia	Zubipen	Gaur 16:30
Bigarren regionala	Axular Lugaritz - Hernani	Herrera	Gaur 19:15
Senior eta jubenilak.F-11	Hernani - Añorga	Zubipen	Gaur 9:00
Jubenila. Liga nazionala.	Cultural de Durango - Hernani	Tabiran	Gaur 18:30
Jubenila. Lehenengo maila.	Hernani - Amaro	Zubipen	Bihar 12:15
Kadeteak. Ohorezko maila	Hernani - Touring CD	Zubipen	Bihar 10:30
Kadeteak. Lehenengo maila.	Trintxerpe Azkuene - Hernani	Trintxerpen	Gaur 10:00
Kadeteak. F-11	Hernani - Zumaiako	Zubipen	Bihar 16:30
Infantilak. Ohorezko maila	Hernani - Antiguoko	Zubipen	Gaur 10:45

FUTBOLA

Infantil Txiki	Ostadar - Hernani	Michelin	Gaur 11:30
ERRUGBIA-Lagunarteko jardunaldia			
Seniorrak	Galway Corinthians - Hernani	Trebijano	Gaur 16:00
PELOTA-Gipuzkoako Txapelketa - Eskuz binaka			
Jubenilak	Noble-Zaplain / Usurbil	Kiroldegian	Bihar 11:00
Seniorrak	Esna - gorrotxategi / Eskoriatza	Kiroldegian	Bihar 11:00

◆ FUTBOLA

Luci Palaciosi omenaldia Zubipen

Gaur goizeko 12:15etan Luci Palacios Hernaniko entrenatzaile izan zenari omenaldia egingo diote Zubipen. Ondoren lagunarteko partidua jokatu dute Errealeko beterranoek eta Luciren lagunek. ■

◆ ZIKLOTURISTAK

Hondarribira irtenaldia

Zikuñako Ama zikloturista taldeko kideak Hondarribira irteera egindo dute bihar. Ibilaldia Hondarribiko faroan amaituko dute eta guztira 40 kilometro egingo dituzte. ■

◆ ERRUGBIA

Lagunarteko partidua

Hernaniko errugbi taldeak aurre-denboraldiko laugarren partidua jokatu du gaur, nahiz eta Garagardo Azoka bete betean izan.

Aurkari Galway Corinthians taldea izango dute Altamiran.

Denboraldia urriaren 6an hasiko du talde hernaniarrak Landaren, Universidad de Vigoren aurka. ■

Errugbi Eskolako gurasoei deialdia

Errugbi Elkartek Errugbi Eskolako gurasoei dei egin die, gaur arratsaldeko 18:00etatik aurrera, Garagardo Azokara azaltzeko.

Adierazi dute, tabernarako eta sukalderako jendea falta zaiela, eta turnoak antolatu behar dituztela arratsalde eta gauerako. ■

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskala jartzen duenak eskatu bezala errespetatu dira eta funeria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.



V. URTEURRENA Ascensio Etxeberria Arregi

2003ko irailaren 21ean hil zen, 82 urte zituela

Seme-alabak: Mertxe eta Pablo eta Koro; bilobak: Haritz eta Maddi; anai-arrebak: Miguel (†), Jose, Bernardo (†), Ruperto eta Mercedes; ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde oitutz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitzela, **BIHAR, IGANDEA, IRAILAK 21**, goizeko **HAMAIKETAN** SAN JOAN BATAIATZAI-LEAREN parroki elizan egingo den urteurreneko mezara eta bere emazte **Jesusa Aranburu**ren mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2008ko irailaren 20an.

Helbidea: Larramendi, 9 - 4 C



AUKERA!!

Pisua salgai prezio onean

- Kardaberaz kalean
- Sukaldea, sala, 2 logela, komuna eta trastelekua
- Altxariekin
- Sartzeko moduan

Informazio gehiago
616 646 660

FUNERARIA ORBEGOZO ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

☎ **TELEFONOAK** ● **Taxiak:** 943 550093 ● **Udaltzaingoa:** 943 248900 ● **DYA:** 943 464622 ● **Autobusak:** Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● **Anbulatorioa:** 943 006666 ● **Jokalari anonimoak:** 943 331103 ● **Alkoholiko anonimoak:** 943 331103
✚ **FARMAZIAK** ● **Egunez:** **Chucua** Kardaberaz 48 - 943 551793 ● **Gauetz:** **Correa** Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA **GAUR** Giro eguzkitsua izango da nahiz eta goizean eta gauean lainoak izan daitezkeen. Temperatura igo egingo da 25°C ingurura.
BIHAR Egunean zehar lainoak ugari-zen joango dira eta gau alde- ra euria egin dezake. Tenpe- raturak berdin jarrituko du. (euskalnet)

KRONIKA



Udal euskaltegian matrikula egiteko aukera

Udal euskaltegian matrikula egiteko aukera badago oraindik, plaza batzuk libre gelditzen baitira. Matrikula egiteko epea irailaren 24ra arte izango da. Izena emateko goizeko 09:30etatik 13:30etara eta arratsaldeko 16:30etatik 19:30etara joan daiteke Udal euskaltegi bertara, garai bateko anbulatorio zaharra zegoen egoitzara. Bestalde, atzo sheriff- ez jantzitako pertsona bat matrikula egiteko eskuorriak banatzen aritu zen herrian. ||

❖ PORTU AUZOA

Portuko plazaren 50 urteurreneko bazkaria

Portuko plazak, Ibarrolaburu plazak, 50 urte beteko ditu urriaren 12an. Egun horren bueltan ospakizuna izango da eta tartean bazkaria. Txartelak salgai jarri dituzte dagoeneko, Pedro Mari tabernan eta Agustinen dendan. Ospakizuna irekia da eta nahi duena joan daiteke. ||

❖ GALDUTAKOAK

Haur bizikleta txikia galdu da

Haur bizikleta txikia galdu da Biteri aurrean. Bizikleta imaginariu-ekoa da, urdina eta grisa da eta ez du pedalik. Aurkituz gero, deitu 635 70 74 73ra. ||

❖ IGANDE MUSIKATUAK

Reggae eta Rap doinuak bihar Tilosetan

Igande musikatuak saioekin jarraituz bihar Mikel musika jartzaile hernaniarra izango da Tilosetan. Reggae eta Rap estiloko musika jarriko du, batez ere. 18:00etan hasita. ||

❖ GOIZUETA

Euskal jaia bihar kanpinean

Goizuetako Iskibi kanpinean euskal jaia izango da bihar: 12:30etan abesbatzaren emanaldia ; 13:00etan herri kirolak; 14:00etan talo jate bazkaria; 16:00etan toka txapelketa eta 18.00etatik aurrera Bide batez taldearekin erromeria izango da. ||

OSINAGA AUZOARI ESKERRAK EMAN NAHI DIZKIOGU

Karmele eta
Joxe Marik

Esteban eta
Ana Marik



❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisua salgai Portu auzoan, 72m2, dena kanpokaldera eta altzariekin. Deitu: 688 631 558 / 615 740 565.
Gela baten bila nabil (300 euroko alokairua gehienez). Deitu: 696 166 110
Furgoneta salgai, volswagen carabel, ondo zaindutakoa (ekipatua). Deitu: 663 649 765.
Haurrak zainduko nituzke goizez eta arratsalde. Deitu: 687 634 305
Tabernaria behar da Hernaniko tabernan urte osoan lan egiteko (jornada osoa). Deitu: 616 589 445.
Pisu bila nabil Hernanin (alokairuan). Deitu: 626 802 083
Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 80m2 + almazena 80m2. Deitu: 607 914 938 / 669 977 139.
Mugimendua jostailu. Mugimendu adierazgarrien lantegia haurrentzat. Talde txikiak, banakako arreta. SASOIKO, 943 33 11 83/ 656 721 492 (Josune Goikoetxea).
Gimnasia Kontziente bateratzalea. Ariketak hurrunkera naturalean, arnasketa, erlaxazioa, estresa nola saihestu eta nola tratatu... SASOIKO (Marieluts 4 behe). 943 33 11 83 - 656 72 14 92 (Josune Goikoetxea)
Gimnasia Orekatua HAURDUNENTZAT. Haurdunaldia eta erditzea ondo garatzeko. Haurraren garapena osasuntsua eta zoriontsua izateko. SASOIKO. Deitu 943 33 11 83 - 656 7214 92 (Josune Goikoetxea)
BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: 656 78 64 15 (aurretik deitu).
Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: 943 33 07 35 (Lizeaga, 2 P-1 B).
Yolanda estetika zentrua. Argi zapaldu bidezko depilazioa (azken berrikuntza), mantxa eta Kuperros. Bibrazio bidezko terapiarekin egindako gorputz tratamenduak eta "vacumterapia". Haserako eskaintza. Froga dohainik. Atzietza 2, behe. Tel. 943 55 32 78.
Argia zentroa. Masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, erreflejo ajustea eta bertebrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
Argia zentroa. Balneoterapia-spa, gorputz eta aurpegi tratamenduak, oinen eta eskuen estetika. Eskatu ezazu programa informatiboa. Antziola 39 (Mendi mendian, 2). 943 55 76 76
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

UDAL EUSKALTEGIAK

WANTED

27 urte euskara irakasten. Todos los niveles. 43 zentro. HABEko diploma. Horario personalizatzen. Behak...

★ **MATRIKULA ZABALIK** ★ **MATRIKULA ABIERTIA** ★

HERNANIKO UDAL EUSKALTEGIA:
08-09 IKASTURTERAKO
MATRIKULA EPEA ZABALIK
Hernaniko Udal Euskaltegia martxan da berriz ikasturte berriari gogoz ekiteko.

ESKANTZA:

- Euskalduntzea:
- 2 ordu egunean, asteleheneetik ostegunera
- Goizez, arratsalde eta gauetz
- Tutoretzak barne: ikasle bakoitzaren premiei erantzuteko
- Guraso eta merkatarienezko taldeak:
 - Eguerdian, 14:30-16:30
 - Astean 6 ordu, 3 egunetan 2 orduz egunean
- Auto-ikaskuntza: aurtengo berrikuntza

MATRIKULATZEKO EPEA:
Irailaren 2tik 24ra
ORDUTEGIA:
Goizez: 09:30 - 13:30
Arratsalde: 16:30 - 19:30

- Azterketak prestatzen ditugu:
 - HABE, IVAP, EGA... HABEko 1. eta 2. mailako azterketak, euskaltegian bertan, gainera.
- Erabilera sustatzeko hainbat jardura: asteburuko barnetegiak, tailerrak, hitzaldiak...

Informazio gehiago nahi izanez gero,
deitu 943 331 896 telefonora
edo idatzi euskaltegi@hernani.net helbidera.

Parcours
FRANTSES AKADEMIA

Adlani Bensefia

Antziola, 26 - HERNANI
609 85 96 69

2008-2009 IKASTAROAK

IZEN EMATEA ZABALIK

- GAZTEENTZAKO, HELDUENTZAKO ETA ENPRESEENTZAKO IKASTAROAK
- DELF, DALF, EOI ETA BESTELAKO AZTERKETEN PRESTAKUNTZA
- TALDEKAKO IKASTAROAK ETA KLASA PARTIKULARRAK

Parcours